



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Jagoba Manterola Ruiz  
Mikel Gereka Zelaia  
Carmelo Ayoroa Hualde  
Marcelino Bazterrica Alchu  
Pedro José Alchu Ariztegui

2015eko otsailaren 26an, 19:30etan, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

## **1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.**

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

## **2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.**

1. M.T.S.A.k lizentzia eskatu zuen, Palazio kalean daukan etxebizitzako gela batean komuna eraikitzeke. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea S. andreari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 1.760 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 52,80 euro.

2. M.S.O.k lizentzia eskatu zuen, 17,50 metro karratuko egurtegia eraikitzeke material birziklatuekin, *Garatamakobordari* atxikia (2 poligonoko 383 partzela). Obra hori lurzoru urbanizaezinean egin nahi da eta Lurraldearen Antolamenduko eta Hirigintzako Zerbitzuak jarduera baimendutzat hartzen du (2013ko maiatzaren 14ko jakinarazpena). Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea S. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen. Kalkulatutako aurrekontua 100 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 3 euro.

3. E.I.I.k lizentzia eskatu zuen, 17 metro karratuko egurtegia eraikitzeke *Mendialde* etxearen ondoan (2 poligonoko 519 partzela). Obra hori lurzoru urbanizaezinean egin nahi da eta Lurraldearen Antolamenduko eta Hirigintzako Zerbitzuak jarduera baimendutzat hartzen du (2013ko maiatzaren 14ko jakinarazpena). Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea I. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 1.880 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 56,40 euro.

4. I.B.E.k lizentzia eskatu zuen, 10,50 metro karratuko egurrezko etxola eraikitzeke *Landabide* etxearen atzealdean (hiri-lurrako 2 poligonoko 9 partzela). Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea B. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen; aurrekontua idatzia edo faktura aurkeztu beharko du Udaletxean, zerga hori likidatu ahal izateko.

5. M.G.Z.k lizentzia eskatu du, 9 metro karratuko egurrezko etxola eraikitzeke material birziklatuekin, 2 poligonoko 226 partzelan. Obra hori lurzoru urbanizaezinean egin nahi da eta Lurraldearen Antolamenduko eta Hirigintzako Zerbitzuak jarduera baimendutzat hartzen du (2013ko maiatzaren 14ko jakinarazpena). Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea G. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

beharko du obra hasi baino lehen. Kalkulatutako aurrekontua 150 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 4,50 euro.

Mikel Gerekak ez du erabaki honetan parte hartu.

6. Zubietako Udalak bidali zuen M.A.E.B.k aurkeztutako eskaeraren kopia, ur-hornidura eramateko Iturengo eremuan dagoen Bizarronekobordara (3 poligonoko 123 partzela), Zubietako zerrategira doan ur-saretik hartuta (lurzoru urbanizaezina). Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 117. artikulua arautzen duenarekin bat etorriz, aho batez erabaki da:

1.- Aldeko txostena ematea obrari.

2.- Zubietako Udalaren esku uztea espedientearen tramitazioa eta ebazpena.

7. M.M.E.k lizentzia eskatu zuen, *Latxanea* etxeko teilatua eta fatxadak zaharberritzeko. Proiektua aurkeztu zuen eskaerarekin batera, P.V.G. arkitektoak egin. Arkitekto aholkulariek eman duten txostena irakurri eta gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea M. jaunari, arkitektoak egindako proiektuaren arabera eta baldintza hauekin:

- María Urmeneta eta Patxi Chocarrok emandako txostenean aipatzen diren betebeharrak kunplitu.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu obrak hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 36.048,87 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 1.081,47 euro.
- Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraispentako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituen 23/2011 Foru Dekretuko 3., 4. eta 6. artikulua bete: obra egin behar duen enpresa eraikuntza eta eraispentako hondakinen edukitzaile diren eraikitzaileen erregistroan inskribatua dagoela egiaztatu edo 1.000,00 euroko fidantza edo bankuko abal bat aurkeztu.

Carmelo Ayoroa sartu da.

8. S.G.E.k lizentzia eskatu zuen, leiho berria irekitzeko *Jostunea* etxeari, alboko fatxadan eta etxeari atxikia dagoen garajeko teilatua zaharberritzeko. Proiektua aurkeztu zuen eskaerarekin batera, M.O.A. eta J.J.O.G. arkitektoek egin. Arkitekto aholkulariek eman duten txostenean proposatzen dute eskatutako leiho berriaren planteamendua aldatzea. Gaia eztabaidatu da eta, Udalaren ustez, leihoa ongi dago O. arkitektoen proiektuan ageri den bezala. Aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea G. andreari, arkitektoek egindako proiektuaren arabera eta baldintza hauekin:

- Baimena eskatu Kantauriko Ur-konfederazioari. G. andreak eskatu beharko du baimen hori.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu obrak hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 10.022,25 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 300,67 euro.
- Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraispentako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituen 23/2011 Foru Dekretuko 3., 4. eta 6.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

artikuluak bete: obra egin behar duen enpresa eraikuntza eta eraispenetako hondakinen edukitzaile diren eraikitzaileen erregistroan inskribatua dagoela egiaztatu edo 1.000,00 euroko fidantza edo bankuko abal bat aurkeztu.

Baldintza hauek bete behar dira puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan:

- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

Pedro José Alchu sartu da.

### **3. LIZENTZIA DEUSESTZAT JOTZEKO PROZEDURA.**

2014ko ekainaren 25eko Osoko Bilkuran erabaki zen, *Apeztegia* etxeko bigarren solairuan 2 balkoi eraikitzeke emandako lizentzia deusestzat jotzeko prozedurari hasiera ematea, legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz eman zelako (Kultura Zuzendaritza Nagusiko txostena nahitaezkoa eta loteslea zela iruditu zitzaion Udalari, lizentzia txostenarik gabe eman zen eta geroago emandako txostena, obraren kontrakoa izan zen).

Ezarritako prozedura jarraitu zen, alegazioak aurkezteko aukera eman zitzaion interesdunei, aldeko irizpena eskatu zitzaion Nafarroako Kontseiluari eta lizentzia deusestzat jotzeko prozeduraren etendura erabaki zen, aipatuko irizpena izan arte.

Nafarroako Kontseiluak bidali zuen 1/2015 zenbakiko irizpena eta esaten du: ez dela bidezkoa 2012ko urriaren 4an emandako obra-lizentzia administrazioaren kabuz berrikustea, Kultura Zuzendaritza Nagusiko txostena ez delako loteslea, nahitaezkoa besterik ez. 2010eko abenduaren 10ean txostena eman zuen Kultura Zuzendaritza Nagusiak zera esanez: *Apeztegia* etxeko bigarren solairuko 2 leihoak luzatzen ahal direla eta ateetan bihurtu, bainan hegalkina daukaten balkoiak eraiki ez.

Aurrekariak ikusirik, eta 30/1992 Legearen 102. artikuluan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabaki da:

1. Bere gain hartzea Nafarroako Kontseiluaren 1/2015 zenbakiko irizpena eta 2012ko urriaren 4an emandako obra-lizentzia, administrazioaren kabuz berrikusteko prozedura artxibatzea.
2. Erabaki honen berri ematea espedientean interesatu bezala agertzen diren guztiei eta Nafarroako Kontseiluari.

### **4. ZENBAIT ESKAERA.**

1. M.L.E.k baimena eskatu du Udaletxeko ganbarako sukaldea erabiltzeko martxoaren 16an, 16:30etatik aurrera, tuperware erabilerari buruzko bilera egiteko. Baimena ematea erabaki da aho batez, sukaldea dagoen bezala uzteko baldintzapean.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

2. S.A.I.k baimena eskatu du, 2 poligonoko 370 partzelan landatzeko 300 sagarrondo. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da A. andreari jakinaraztea lursaila komunala bezala agertzen dela katastroan eta ikertu beharko dela norbaitek eskrituratua daukan edo aprobetxamenduren bat emana dagoen bertan. Lursail komunalen afera konpondu gabe dago Iturenen, eta konpontzen ez den bitartean, zaila da egin duen eskaerari buruzko erabaki bat hartzea.

3. Aurkeztu duen eskaria irakurri ondoren, aho batez erabaki da 100 euroko diru-laguntza ematea Malerrekako Herrietako Eskola taldeari, Nafarroako Landa Eremuko Eskolen Jardunaldiak ospatzeko Iturenen, 2015eko maiatzaren 23an.

4. Beste diru-laguntza hauek ematea erabaki da aho batez:

- 150 euro Baztan Ikastolari, Nafarroa Oinez 2015 antolatzeko.

- 150 euro Herri Urratsi.

5. V.M.A.k baimena eskatu zuen urtegiaren erori den pago 1 aprobetxatzeko. Aho batez erabaki da M. jaunari saltzea arbola, basozainak egin duen balorazioko prezioan, 6,72 euro (BEZa barne).

6. K.L.M.k baimena eskatu zuen Makillipurdi eta urtegiaren erori diren 2 pago aprobetxatzeko. Aho batez erabaki da L. jaunari saltzea arbolak, basozainak egin duen balorazioko prezioan, 6,72 euro (BEZa barne).

## **5. ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2014ko abenduaren 19koa, Estatuko Administrazio Orokorreko Faktura Elektronikoen Sargune Orokorren Plataformari (FACE) atxikitzea erabaki zuena; 2015eko urtarrilaren 23koa, *Herriko Ostatuko* ordutegia luzatu zuena Iñauterietako.

## **6. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.**

1. Idazkariak irakurri du Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egin duen ikuskapen akta eskolako jantokiari buruz. Agiriaren jakinaren gainean geratu da Udalbatza eta sukaldean falta diren baldosak jartzea erabaki da.

2. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisisen emaitzak; Nafarroako Gobernuak eman duen baso-aprobetxamenduko baimena — J.C.S.ri—; Nafarroako Gobernura bidali diren baso-aprobetxamenduko baimen eskaerak —J.A.G., F.J.S. eta J.M.S.ak—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baimenak larreak erretzeko —M.M.ri eta Á.G.ri—; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali dituen esplotazioen erregistroan izandako mugimenduak —R.M. eta L.G.ren bajak eta U.E. eta Ituren Udalaren altak—.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

3. Idazkariak irakurri du Herrilaneko zuzendari orokorraren 896/2014 Ebazpena. Iturengo zeharbidean sortzen diren trafiko-arazoak konpontzeko zenbait neurri hartzeko baimena eman duena. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

- 2 baliza malgu (H-75) jartzea *Marizenea* etxeko balkoiaren parean.
- Zebrabideak margotzea.
- Abiadura murriztea zeharbidean: 30 kilometro orduko. 2 seinale jarriko dira.

4. I.G.k utzi du Bertizko Partzuergo Turistikoaren gerentzia eta I.E.k, Cederna Garalur Elkartearena. Jakinaren gainean geratu da Udalbatza.

5. Jarraian, alkateak azaldu du *Aurtizko Ostatuan* dauden arazoak teilatuko itaxurekin eta terrazatik sartzen den urarekin. Arazo hauek konpontzeko dauden aukerak aztertu ondoren, aho batez erabaki da bisita bat egitea berehala eraikuntzari, bertan erabakitzeko zer egin, kontuan izanda irtenbide egokiena terraza estaltzea izango dela seguruenik.

6. Idazkariak azaldu du X.I.M. jaunak, "PROMOCIONES LINDUTX BAZTAN, S.L." enpresaren izenean, eskatu diola Iturengo Udalari ondare-erantzukizun espedientea irekitzea, Udala eta enpresa artean sinatutako hirigintza hitzarmenaren ez betetzea leporaturik. Aho batez erabaki da M.E. letratuarekin egitea bilera bat berehala, gaia aztertzeko. Bilera horretan aztertuko dira ere "Tresenea Apartamentos Turísticos, S.L."ren hitzarmena eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gaineko Zergan aplikatutako hobaria (bonifikazioa).

## **7. HERRIAREN TXANDA.**

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 23:00ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.